

## BIZI HITZA

Abendua 2024

### «Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik» (Lk 1, 37).

Deikundearen kontaketa Gabriel aingeruak Nazareteko Maria bisitatzen du Jainkoak berarentzat dituen asmoen berri emateko: seme bat kontzebitu eta erdituko du, Jesus, «handia izango dena eta Goi-goikoaren Seme deituko diotena» (Lk 1, 32). Kapitulu honek Itun Zaharreko beste gertaera batzuen ereduari jarraitzen die, jaiotza miragarriak izan zituzten emakume antzuak edo oso zaharrak, euren semeek salbazioaren historian eginkizun garrantzitsua izango baitzuten. Hemen, Mariak Mesiasen ama izateko misioari askatasun osoz atxiki nahi dion arren, bere buruari galdetzen dio nola gerta daitekeen hori, bera birjina izanik. Gabrielelek dio ez dela gizakiaren lana izango: «Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu» (Lk 1, 35). Eta gehitzen du:

### «Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik».

Ziurtasun hori, Jainkoaren adierazpen edo promesa bat bera ere bete gabe geldituko ez dela esan nahi duena –Harentzat ezinezkorik ez baitago –, horrela ere formulatu daiteke: ezer ez da ezinezkoa Jainkoarekin. Izan ere, testu grekoaren ñabardurak *–rekin, edo gertu edo ondoan–* gizakiarengandik gertu dagoela argitzen du. Gizakia edo gizakiak dira, Jainkoarengandik hurbil daudenean eta Hari libreki atxikiak daudenean, ezer ezinezko ez zaienak.

### «Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik».

Nola jarri praktikan bizi-hitza hori? Lehenik eta behin, konfiantza handiz sinetsiz Jainkoak gure muga eta ahulezien barruan eta haratago ere jardun dezakeela, baita bizitzako baldintza ilunenetan ere.

Hori izan zen Dietrich Bonhoefferren esperientzia. Supliziara eramango zuen preso-aldian honako hau idatzi zuen: «Behin eta berriz murgildu behar dugu Jesusen bizi, hitz egin, jardun, sufritu eta hiltzean, Jainkoak agintzen eta betetzen duena ezagutzeko. Egia da [...] guretzat jada ez dagoela ezinezkorik, ezer ez baitago ezinezkorik Jainkoarentzat; [...] egia da ez dugula ezer nahi izan behar eta, hala ere, dena eska dezakegula; egia da sufrimenduan ezkututzen dela gure poza eta heriotzan gure bizitza... Honi guztiari Jainkoak *bai eta amen* esan zion Kristorengan. *Bai* hori eta *amen* hori dira, gu mantentzen garen oinarri irmoa»<sup>1</sup>.

### «Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik».

Bizitza koherente baten “posibilitatera” iristeko gure ezgaitasunaren itxurazko “ezintasuna” gaingaitzen saiatzen garenean, dimentsio komunitarioak paper erabakigarria jokatzen du; komunitatean bizi eta garatzen dute ikasleek euren artean Jesusen agindu berria,

---

<sup>1</sup>D. BONHOEFFER, *Resistenza e resa*, San Paolo, Cinisello Balsamo 1988, 474. orr. Dietrich Bonhoeffer (1906–1945) teologo eta artzain luterano alemaniarra zen, nazismoarekiko erresistentziaren protagonista.

eta horrela Kristo berpiztuaren boterea eurengan bizitzen uzten dute, bakoitzarengan eta denengan.

Honela idatzi zien Chiara Lubichek erlijioso gazte talde bati 1948an: «Eta aurrera! Ez gure indarrarekin, doilor eta ahula, Batasunaren ahalguztiduntasunarekin baizik. Egiaztatu dut, haztatu, Jainkoak gure artean ezinezkoa posible egiten duela: mirakulua! Gure leloari leial bagagozkio [...] munduak Batasuna ikusiko du eta, horrekin batera, Jainkoaren Erresumaren osotasuna»<sup>2</sup>.

Duela urte batzuk, Afrikan nengoela, askotan kristau bezala bizi nahi zuten gazteekin topo egiten nuen eta beren inguruan fedearen konpromisoei eta Ebanjelioaren irakaspenei leial jarraitzeko aurkitzen zituzten zailtasun ugariei buruz hitz egiten zidaten. Ordu luzez hitz egiten genuen horretaz, eta azkenean beti ondorio bera ateratzen zuten: «Bakarrik ezinezkoa da, baina elkarrekin egin dezakegu». Jesusek berak bermatzen du:

«Izan ere, nire izenean (nire maitasunean) bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago ni beraien artean» (Mt 18, 20). Eta harekin dena da posible.

*Augusto Parody Reyes eta Bizi-Hitzako taldea*

---

<sup>2</sup>C. LUBICH, *El primer amor. Cartas de los inicios (1943-1949)*, Ciudad Nueva, Madril 2018, 180.